

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

**GAIA.- GIZARTE EKINTZA SAILAREN FORU DIPUTATUAREN ETA GUFERE-REN GOBERNU BATZORDEKO PRESIDENTEAREN EBAZPENA, 2019KO ABUZTUAREN 2KOA, ZEINAREN BIDEZ XEDATZEN BAITA MARIA TERESA ALBA ZUBIZARRETA ANDREA GUFE-KO GERENTE KARGUTIK KENTZEA.**

**OINARRI JURIDIKOA.-** GUFEREen estatutuen aldaketari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 8. artikuluan ezartzen denaren arabera, presidentek libreki izendatu eta kargugabetuko du GUFeko gerentea; gainera, gerentearena konfiantzazko kargua izango da, eta aplikatzekoak izango zaizkio goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman bereziak arautzen dituen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuaren xedapenak.

Ondorioz, ebazpen honen arrazoia den goi-zuzendaritzako kontratua azkentzeko, errege-dekretu horretan xedatutakoaz gainera, kontuan hartu behar da azaroaren 18ko 7/2015 Foru Arauan ezarritakoa; izan ere, foru arau horren bitartez aldatzen da 4/1989 Foru Araua (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Ahaldun Nagusiaren, foru diputatuen, zuzendari nagusien eta sozietate publikoetako eta zuzenbide pribatuko beste erakunde publiko batzuetako zuzendaritzako kideen ordainsariak arautzen dira).

**OINARRI JURIDIKOA-** GUFEREen estatutuen aldaketari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 6.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Gobernu Batzordeko presidentearen eskumena da GUFeko gerentea izendatzea eta kargugabetzea.

Aurreko guztia dela eta, GUFEREen Gobernu Batzordeko presidentek honako hau


**EBAZTEN DU:**

**Lehenengoa-** María Teresa Alba Zubizarreta andrea GUFE Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko gerente kargutik kentzea, eta eskerrak ematea eginiko zerbitzuengatik; kargugabetzeak aurtengo irailaren 2tik aurrera izango ditu ondorioak.

**Bigarrena-** Interesdunari, GUFeko Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen Dibisioko buruari, Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen Dibisioko buruari, Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruari, Zerbitzu Orokorren Departamentuko buruari eta Antolaketa eta Hobekuntzarako Departamentuko buruari, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari jakinaraztea ebazpen hau. Aurrekoa bete bedi.

Bilbon, 2019ko abuztuaren 2an

GUFERE-REN GOBERNU BATZORDEKO PRESIDENTEA



*Sin.: Sergio Murillo Corzo*